

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ASTIGARRAGAKO UDALA

Iragarkia

Astigarragako Tokiko Gobernu batzarrak 2020ko maiatzaren 26ko bileran ebatzi du merkataritza ekintzailetza sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak ontzat ematea eta laguntzen deialdi publikoa egitea.

Merkataritza ekintzailetza sustatzeko dirulaguntzen oinarri espezifikoak.

1. Xedea eta aplikazio eremua.

Oinarri hauen xedea da, lehia askeko erregimenean, Astigarragako merkataritza eremu nagusian hutsik dauden lokaletan jarduera ekonomiko berri bat abian jarri nahi duten ekintzaileei laguntzeko zein ixtear dauden negozioen eskualdatzeak sustatzeko dirulaguntza emakidarako deialdia arautzea.

Dirulaguntzak III. eranskinean xedatutako eremuan kokatzen diren lokaletan ezarritako jarduerak laguntzera zuzenduko dira soilik.

2. Onuradunak.

Astigarragan, III. eranskinean xedatutako eremuan, hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat ipini nahi duen edo ixtear dagoen jarduera bati jarraipena eman nahi dion edonor, pertsona fisiko nahiz juridikoa. Jarduera, merkataritza lokalean 2020ko urtarrilaren 1etik hasita eta azaroaren 30a bitartean ezarri diren proiektuentzat izango da. Onuradunak 3 motetan sailatuko dira:

1. Jarduera berri bat martxan jarri nahi duten ekintzaileak.

2. Hazitegi, elkar-lan espazio edo antzerako batean euren jarduera hasi eta lokal huts batean proiektua ezarri nahi duten ekintzaileak.

3. Ixtear dagoen edo berriki itxi den jarduerari jarraipena eman nahi dioten ekintzaileak.

3. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzen eskaerak, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den bihararumetik hasita eta kreditua agortu arte edo 2020ko azaroaren 30a bitartean aurkeztu ahal izango dira.

Pertsona juridikoei eskaera telematikoki aurkeztu behar dute udalaren egoitza elektronikoaren bidez, <http://astigarraga.eus/eu/tramiteak>. Pertsona fisikoek, berriz, aukera dute telematikoki edo Astigarragako Udaletxeko erregistroan aurkezteko, baita Herri-administrazioen administrazio-prozedura erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere.

4. Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak.

1. Astigarragako Udaleko Komertzioa, Turismoa eta Tokiko Garapen batzorde informatzailea arduratuko da eskaera izapidetu, baloratu eta ebazpen proposamena egiteaz.

AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

Anuncio

La Junta de Gobierno Local de Astigarraga, en su reunión del día 26 de mayo de 2020, ha resuelto aprobar las bases específicas para la concesión de subvenciones para el fomento del emprendimiento comercial y proceder a su convocatoria pública.

Bases específicas de las subvenciones para el fomento del emprendimiento comercial.

1. Objeto y ámbito de aplicación.

Es objeto de las presentes bases es regular, en régimen de libre competencia, la convocatoria de concesión de subvenciones destinadas a apoyar la puesta en marcha de una nueva actividad económica en locales vacíos de la zona comercial principal de Astigarraga, así como a promover la transmisión de negocios de próximo cierre.

Las subvenciones se destinarán exclusivamente a apoyar las actividades establecidas en los locales situados en el ámbito establecido en el anexo III.

2. Personas beneficiarias.

Toda persona, física o jurídica, que desee instalar una nueva actividad económica en un local comercial vacío o dar continuidad a una actividad próxima a su cierre en Astigarraga, en el ámbito establecido en el anexo III. La actividad se destinará a los proyectos implantados en el local comercial desde el 1 de enero hasta el 30 de noviembre de 2020. Las personas beneficiarias se clasificarán en 3 tipos:

1. Personas emprendedoras que deseen poner en marcha una nueva actividad.

2. Personas emprendedoras que inicien su actividad en un semillero, espacio colaborativo o similar y quieran implantar el proyecto en un local vacío.

3. Personas emprendedoras que deseen dar continuidad a una actividad próxima o de reciente cierre.

3. Plazo y lugar de presentación de solicitudes.

Las solicitudes de las subvenciones previstas en esta convocatoria podrán presentarse desde el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa hasta el agotamiento del crédito o hasta el 30 de noviembre de 2020.

Las personas jurídicas deberán presentar la solicitud telemáticamente a través de la sede electrónica del Ayuntamiento, <http://astigarraga.eus/es/tramites>. Las personas físicas podrán presentarse telemáticamente o en el registro del Ayuntamiento de Astigarraga, así como en los lugares a que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

4. Órganos competentes para la tramitación y resolución del procedimiento.

1. La Comisión Informativa de Comercio, Turismo y Desarrollo Local del Ayuntamiento de Astigarraga se encargará de la tramitación, valoración y propuesta de resolución de la solicitud.

2. Astigarragako Udaleko Komertzioa, Turismoa eta Tokiko Garapen batzorde informatzaileak ofizioz burutuko ditu ebazpen proposamena egiteko aintzat hartu behar diren datuak zehazteko, jakiteko eta egiaztatze bidezkotzat jotzen dituen jarduera guztiak.

3. Eskaera aztertu eta baloratu ondoren, Astigarragako Udaleko Komertzioa, Turismoa eta Tokiko Garapen batzorde informatzaileak proposamena Alkatetzara edo Tokiko Gobernu Batzordera helaraziko ditu. 3.000 eurotik beherako laguntzak Alkatetzako dekretu bidez ebatziko dira, eta 3.000tik gorakoak, berriz, Tokiko Gobernu batzordeko akordio bidez.

4. Eskaerak ebazteko epea eskaera aurkeztu eta sei hilabetekoa izango da gehienez. Epe hori igaro eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek zilegi dute diru-laguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsitzat jotzea.

5. Dirulaguntza eman zaiola jakinarazten dion agiria edo jakinarazpena jaso eta hamabost (15) eguneko epean berariaz eta idatziz uko egiten ez badio diru laguntzari, onartu egin duela ulertuko da, bai deialdian zein ebazpenean ezartzen diren baldintza ekonomikoek dagokienez, bai gainerako baldintza edo alderdi guztiei dagokienez.

5. Laguntza eskatzeko bete beharreko baldintzak.

Eskatzaileek ondoren zehazten diren baldintzak bete beharko dituzte diru-laguntza hauen onuradun izateko:

– Enpresak egoitza soziala Astigarragan edukitzea eta gehienez 5 langile izatea.

– Dagoeneko altan dauden jardueren kasuan, baldin eta egoitza soziala Astigarragatik kanpo kokatzen bada, hilabeteko epea edukiko dute egoera hori aldatzeko.

– Sailkatutako 3 onuradun motetako bat izatea, xedapen hauen 2. oinarriaren arabera.

– Lokalak jarduera sailkatuaren lizentzia izatea edo, hala badagokio, jardueraren alde aurreko jakinarazpena aurkeztu izana. Edo lokalak beste pertsona baten izenean lizentzia badu, lizentzia eskualdatzea izapidetu eta baimendu izana (baldintza hau ofizioz egiaztatuko da).

– Astigarragako udalarekin zerga, tasa edota isunen ordainketa egunean izatea (ofizioz egiaztatuko dena), baita gainerako zerga-betebeharrak ere.

– Gizarte Segurantzian altan egotea eta ordainketak egunean izatea.

– Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan altan egotea gehienez ere lau urteko antzinatasunarekin.

– Jarduera berrien kasuan, Beterri-Buruntza Ekinean ekintzailtza zerbitzuaren oniritzia duen jardueraren bideragarritasun ekonomikoa ziurtatzen duen proiektua landua izatea. Horretarako, ekintzaileak aukera izango du bideragarritasun plan bat garatzeko Beterri-Buruntza Ekinean zerbitzuaren bitartez.

– Dirulaguntza jaso ahal izateko baldintza ezinbestekoa izango da bere enpresa jardueraren tutorizazio teknikoa onartzeko konpromisoa hartzea. Tutorizazio hori eskualdeko Beterri-Buruntza Ekinean ekintzailtza zerbitzuak egingo du jardueraren lehen urtean zehar. Beharkizun hau betetzat joko da, baldin eta tutoreak uste badu jarraitzea ez dela beharrezkoa.

– Jarduera garatu ahal izateko, lehendik, lokalik jabetzan ez izatea.

– Jarduera III. eranskinean xedatutako eremuan kokatzen diren merkataritza lokaletako batean ezartzea.

– Alokairuaren gastua onartuzat jotzeko, ekintzaileek lokal-jabeekin odolkidetasunagatik edo ezkontzagatik bigarren mailara arteko ahaidetasun harremana daukaten ezkontideekin, ondorengoeekin eta gainerako ahaideekin ahaidetasun harremanik ez izatea.

2. La Comisión Informativa de Comercio, Turismo y Desarrollo Local del Ayuntamiento de Astigarraga realizará de oficio cuantas actuaciones estime oportunas para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos que hayan de ser tenidos en cuenta para la elaboración de la propuesta de resolución.

3. Analizada y valorada la solicitud, la Comisión Informativa de Comercio, Turismo y Desarrollo Local del Ayuntamiento de Astigarraga elevará la propuesta a la Alcaldía o a la Junta de Gobierno Local. Las ayudas inferiores a 3.000 euros se resolverán por Decreto de Alcaldía y las superiores a 3.000 por Acuerdo de la Junta de Gobierno Local.

4. El plazo máximo para resolver las solicitudes será de seis meses desde la presentación de la solicitud. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado la resolución, las personas interesadas podrán entender desestimada su solicitud de concesión por silencio administrativo.

5. Si en el plazo de quince (15) días tras la fecha de recepción del documento o comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada, tanto en lo que se refiere a las condiciones económicas establecidas en la convocatoria, resolución y demás condiciones o extremos.

5. Requisitos para solicitar la ayuda.

Las personas solicitantes deberán reunir los siguientes requisitos para ser beneficiarias de estas subvenciones:

– Que la empresa tenga su domicilio social en Astigarraga con un máximo de 5 personas trabajadoras.

– En el caso de actividades ya de alta cuyo domicilio social se ubique fuera de Astigarraga, dispondrán de un plazo de un mes para modificar esta situación.

– Pertenecer a uno de los 3 tipos de personas beneficiarias clasificados según la base 2 de estas disposiciones.

– Que el local disponga de licencia de actividad clasificada o, en su caso, haya presentado comunicación previa de la actividad. O cuando el local tenga licencia a nombre de otra persona, haber tramitado y autorizado la transmisión de la licencia (este requisito se verificará de oficio).

– Estar al corriente del pago de impuestos, tasas y/o multas con el Ayuntamiento de Astigarraga (que se verificará de oficio), así como del resto de obligaciones tributarias.

– Estar de alta en la Seguridad Social y al corriente de los pagos.

– Estar de alta en el Impuesto de Actividades Económicas con una antigüedad máxima de cuatro años.

– En el caso de nuevas actividades, haber elaborado un proyecto que certifique la viabilidad económica de la actividad que cuenta con el visto bueno del servicio de emprendimiento Beterri-Buruntza Ekinean. Para ello, la persona emprendedora podrá desarrollar un plan de viabilidad a través del servicio Beterri-Buruntza Ekinean.

– Para ser subvencionable será requisito indispensable el compromiso de aceptar la tutorización técnica de su actividad empresarial. Esta tutorización será realizada por el servicio de emprendimiento comarcal Beterri-Buruntza Ekinean durante el primer año de actividad. Esta obligación se entenderá cumplida si el tutor o tutora considera que no es necesario continuar.

– No disponer ya de locales en propiedad para el desarrollo de la actividad.

– Establecimiento de la actividad en uno de los locales comerciales situados en el ámbito establecido en el anexo III.

– Para declarar aceptado el gasto del alquiler, no tener relación de parentesco, por consanguinidad o afinidad, con los cónyuges, descendientes y demás parientes hasta el segundo grado.

– Lokalaren alokairuaren prezioa gehienez ere 10 €/m²koa izango da 50 m² baino gehiago dituzten lokalentzat eta 13 €/m²ko baino gutxiago dituztenentzat.

– Alokairuan hartzen den lokalaren kontratuak 12 hilabete-ko iraupena izan beharko du gutxienez.

Honako egoera hauetakoren batean dauden pertsona fisiko edo juridikoak ezin izango dira onuradun izan:

– Diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galteza dakarren epai irmo baten bidez kondenatuak izatea, honako delitu hauengatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

– Borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo izana, konkurtsoan deklaraturata egotea (hitzarmen batek horretan eraginkortasuna hartu duenean izan ezik), esku-hartze judizialaren mende egotea edo desgaituta egotea.

– Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana.

– Diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta ez izatea.

– Ebazpen irmo baten bidez diru-laguntzak lortzeko aukera galdu izana.

6. *Aurkeztu beharreko dokumentuak.*

– Eskaera orri orokorra (I. eranskina).

– Zinpeko aitortpena: diru-laguntza jaso ezin izateko bosgarren oinarrian jasotzen diren egoeretak batean ez egotea, helburu berdinerako izandako dirulaguntzen aitortpena eta tutorizazio teknikoan onartzeko konpromisoa. Dagokionean, ekintzaileek lokal-jabeekin odolkidetasunagatik edo ezkontzagatik bigarren mailara arteko ahaidetasun harremana daukaten ezkontideekin, ondorengoekin eta gainerako ahaideekin ahaidetasun harremanik ez izatea (II. eranskina).

– Pertsona fisikoa bada, NANren fotokopia.

– Pertsona juridikoa bada: IFKren fotokopia, ordezkagarritasuna egiaztatzen duten agiriak (ahalorde-eskritura, esaterako), eta ordezkariaren NANren fotokopia.

– Dirulaguntza helbideratuko den kontu zenbakia, eskatzailaren titulartasuna egiaztatzen duen agiriarekin.

– Gizarte Segurantzaren altan egotearen ziurtagiriaren kopia, baita ordainketak egunean edukitzearena ere.

– Jarduera ekonomikoen gaineko zerga altan izatearen kopia.

– Zerga betebeharrak egunean edukitzearen frogagiriak. Udalarenak egunean izatea ez da egiaztatu behar, hori ofizioz egingo baita.

– Dagokionean, lokalaren arrendamendu kontratuaren kopia.

– Dagokionean, arrendatzailearen kontu zenbakiko titulartasun egiaztagiria, onuradunak hilero alokairuko errenta transferituko duena.

– Jarduera berrien kasuan, Beterri-Buruntza Ekinean ekinzaitza zerbitzuaren oniritzia duen jardueraren bideragarritasun ekonomikoa ziurtatzen duen proiektua edo hura egin izanaren egiaztagiria.

7. *Diru laguntzaren zenbatekoa eta diruz laguntzekoak diren gastuak.*

Dirulaguntza hauetarako Udal aurrekontua 18.000 eurokoa da. Dirulaguntza hauek 1 1000.481.01.431.20 20 kontu sailaren kargura emango dira.

Ondoren adierazten dira, diruz laguntzekoak diren gastuak. Gastu hauek 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera egindakoak izan beharko dute eta gastua egin izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako datarekin, dago-

– El precio máximo de alquiler del local será de 10 €/m² para los locales de más de 50 m² y de 13 €/m² para los locales de menos de 50 m².

– El contrato del local en alquiler deberá tener una duración mínima de 12 meses.

No podrán ser beneficiarias las personas físicas o jurídicas que se encuentren en alguna de las siguientes situaciones:

– Haber sido condenadas mediante sentencia firme a la pena de pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas por los delitos de prevaricación, cohecho, malversación de caudales públicos, tráfico de influencias, fraudes y exacciones ilegales o delitos urbanísticos.

– Haber solicitado la declaración de concurso voluntario, haber sido declarada insolvente en cualquier procedimiento, hallarse declarada en concurso (salvo que un convenio haya adquirido en él su eficacia), estar sujeta a intervención judicial o haber sido inhabilitada.

– Haber dado lugar a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.

– No hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.

– Haber perdido la posibilidad de obtener subvenciones mediante resolución firme.

6. *Documentos a presentar.*

– Instancia general (anexo I).

– Declaración jurada de no hallarse incurso en ninguna de las circunstancias recogidas en la base quinta para no ser beneficiario/a de la subvención, así como el compromiso de aceptar la declaración de subvenciones y tutorización técnica para la misma finalidad. Cuando proceda, que las personas emprendedoras no mantengan relación de parentesco con los propietarios de los locales con los cónyuges, descendientes y demás parientes hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad (anexo II).

– Si es persona física, fotocopia del DNI.

– Si se trata de una persona jurídica: fotocopia del CIF, documentos que acrediten su representatividad (por ejemplo, escritura de poder) y fotocopia del DNI del representante.

– Número de cuenta en la que se domiciliará la subvención, con documento acreditativo de la titularidad de la persona solicitante.

– Copia del certificado de alta en la Seguridad Social, así como de estar al corriente de pagos.

– Copia del alta en el Impuesto de Actividades Económicas.

– Justificantes de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias. No es necesario acreditar que esté al día de las municipales, ya que se hará de oficio.

– En su caso, copia del contrato de arrendamiento del local.

– En su caso, certificado de titularidad de la cuenta del arrendador en el que el beneficiario transfiera mensualmente la renta de alquiler.

– En el caso de nuevas actividades, proyecto que acredite la viabilidad económica de la actividad que cuenta con el visto bueno del servicio de emprendimiento Beterri-Buruntza Ekinean o justificante de su realización.

7. *Cuantía de la subvención y gastos subvencionables.*

El presupuesto municipal para estas subvenciones es de 18.000 euros. Estas subvenciones se concederán con cargo a la partida 1 1000.481.01.431.20 20.

Los gastos subvencionables son los que se indican a continuación. Estos gastos deberán haber sido realizados a partir del 1 de enero de 2020 y deberán presentar justificante de la realización del gasto a partir del 1 de enero de 2020, en su caso,

kion kasuan, dirulaguntza eskaerarekin batera edo dirulaguntza justifikatzerakoan. II. eranskineko taulan jasotzen diren gastuak soilik, hartuko dira kontuan.

– Lokalaren alokairua, kontratuaren titularra bada eta alokairuaren ordainketa banketxeko tranferentzia bidez edo helbideratzearen bidez egiten bada. Lokalaren alokairua 12 hilabetez lagunduko da.

– Enpresa eratzeko eta jarduera baimena eskuratzeko gastuak: jarduera lizentzia edo lizentziaren eskualdatzea, jarduera proiektua idazteko gastuak (bai jarduera lizentzia eskatzen bada, bai aurrekomunikazioa egiteko).

– Notaritzako eta erregistroko gastuak edota prozedura izapidetzeko eta ebazteko organoak onartzen dituenak.

– Obra proiektuak eta egokitze lanak eta obrak egitea, beti ere azken horretarako udal baimena eskuratu bada.

– Jarduera abian jartzeko eta Kudeaketa administratiborako aholkularitzako eta gestoriako gastuak.

– Aseguruetako primak.

– Langile Autonomoen Araubide Berezian norbere konturako langile gisa eginiko kotizazioaren ordainketari dagozkion kuotak, edo, hala badagokio, Gizarte Segurantzakoak edo nahizteko mutualetate profesionalari dagozkionak.

Onartutako gastuen % 30a diruz lagunduko da. Ehuneko hori, honako kasu hauetan areagotuko da:

– % 10eko igoera, pertsona fisiko eskatzailea emakumea baldin bada edo pertsona juridiko eskatzailearen emakumezko bazkide edo partaide bakoitzarengatik, betiere hala egiaztatzen bada eskaeran.

– % 10eko igoera, pertsona fisiko eskatzailea edo pertsona juridiko eskatzailearen bazkide edo partaide bakoitzarengatik, baldin eta honako egoera batean dagoen pertsona bada eta hala egiaztatzen bada eskaeran: epe luzeko langabetua, DSBE jasotzen duen titularra edo onuraduna, 45 urte baino gehiagoko langabetua, 35 urte baino gutxiagoko langabetua edo gizarte bazterketa arriskuan dagoen pertsona.

– % 10eko igoera, pertsona fisiko eskatzailea edo pertsona juridiko eskatzailearen bazkide edo partaide bakoitzarengatik, familia eremuan betebeharrak dituen pertsona bada, betiere hala egiaztatzen bada eskaeran.

– % 10eko igoera, bazkide edo partaide bakoitzarengatik pertsona juridikoa gizarte ekonomiako enpresa bada eta hala egiaztatzen bada eskaeran.

Igoera horiek metagarriak izango dira baina, gehienez, onartutako gastuaren % 50a lagunduko da. Eskatzaile bati, pertsona fisiko nahiz juridikoa, dagokion portzentaia dena delakoa izanda ere, gehienez 4.000 euroko dirulaguntza emango zaio.

junto con la solicitud de subvención o a la hora de justificar la subvención, teniendo en cuenta únicamente los gastos que se recogen en la tabla del anexo II.

– Alquiler del local, si es titular del contrato y el pago del mismo se realiza mediante transferencia bancaria o domiciliación. El alquiler del local se subvencionará durante 12 meses.

– Gastos de constitución de la empresa y autorización de actividad: transmisión de la licencia o licencia de actividad, redacción del proyecto de actividad (tanto si se solicita la licencia de actividad como para la precomunicación).

– Los gastos notariales y registrales o los admitidos por el órgano de tramitación y resolución del procedimiento.

– La realización de proyectos de obras, obras de acondicionamiento y obras, siempre que se haya obtenido la correspondiente autorización municipal.

– Gastos de asesoramiento y gestión administrativa para la puesta en marcha de la actividad.

– Primas de seguros.

– Las cuotas correspondientes al pago de la cotización como persona trabajadora por cuenta propia en el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos o, en su caso, de la Seguridad Social o de la mutua profesional obligatoria.

Se subvencionará el 30 % de los gastos aprobados. Este porcentaje se incrementará en los siguientes casos:

– Un incremento del 10 % en el caso de que la persona física solicitante sea una mujer o por cada una de las socias o partícipes de la persona jurídica solicitante, siempre que así se acredite en la solicitud.

– Un incremento del 10 % por cada persona física solicitante o persona socia o partícipe de la persona jurídica solicitante, siempre que se trate de persona desempleada de larga duración, titular o beneficiaria de la RGI, desempleada mayor de 45 años, parada menor de 35 años osituación o riesgo de exclusión social.

– Un incremento del 10 % por cada persona física solicitante o persona socia o partícipe de la persona jurídica solicitante, si se trata de una persona con obligaciones en el ámbito familiar, siempre que así se acredite en la solicitud.

– Un incremento del 10 % por cada persona socia o partícipe la persona jurídica cuando se trate de una empresa de la economía social y así se acredite en la solicitud.

Estos incrementos serán acumulativos pero se subvencionará como máximo el 50 % del gasto admitido. Cualquiera que sea el porcentaje que corresponda a una persona solicitante, física o jurídica, se le concederá una subvención máxima de 4.000 euros.

<i>Kasuak</i>	<i>Igoera ehunekoetan</i>
Emakume ekintzaileak	+ % 10a pertsona bakoitzarengatik
Epe luzeko langabetuak, DSBE jasotzen duten titularrak edo onuradunak, > 45urteko langabetuak, <35urteko langabetuak, gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonak	+ % 10a pertsona bakoitzarengatik
Familia eremuan betebeharrak dituzten pertsonak (0 eta 12 urte arteko seme-alabak edo adin txikikoak familia-harrera erregimenean; 16 urte % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna izanez gero. Bigarren mailara bitarteko odolkidetasuneko edo ahaidetasuneko senideak, mendekotasun-egoera egiaztatuta)	+ % 10a pertsona bakoitzarengatik
Gizarte ekonomiako enpresak, 5/2011 legea, martxoaren 29koa, Gizarte ekonomiari buruzkoaren arabera (Ley 5/2011, de 29 de marzo, de Economía Social)	+ % 10a pertsona bakoitzarengatik

Casos	Porcentaje de incremento
Mujeres emprendedoras	+ 10 % por persona
Personas paradas de larga duración, personas titulares o beneficiarias de la RGI, personas paradas > 45 años, paradas < 35 años, personas en riesgo o exclusión social	+ 10 % por persona
Personas con obligaciones en el ámbito familiar (hijos/as menores de 0 a 12 años o en régimen de acogimiento familiar; 16 años en caso de discapacidad igual o superior al 33 %. Familiares hasta segundo grado de consanguinidad o afinidad, acreditando situación de dependencia)	+ 10 % por persona
Empresas de la economía social según la Ley 5/2011, de 29 de marzo, de Economía Social	+ 10 % por persona

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, gastuei dagokiona bakarrik izango da, BEZ eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita.

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste entitate batzuk emandako dirulaguntzekin.

8. Onuradunaren betebeharrak.

– Zergarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean eramatea.

– Derrigorrezko tutorizazio egitea.

– 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzkoak, xedatutako printzipio orokorrak betetzea eta hizkuntzaren eta irudien erabilera sexistarik ez egitea eta konkretuki: Dokumentazio guztiak, publikitateak, irudiak edo materialek hizkuntza era ez sexistan erabili beharko dute, emakumeen edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexistak saihestu eta sustatu berdintasun balioekiko irudia, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta roletako eta genero identitateetako aniztasuna.

– Astigarragako Udalak kanpoko errotulua, irudi korporatiboa eta web orriak euskaraz jartzeko diru-laguntzen inguruan informatu beharko da. Horretarako Astigarragako Udaleko Komertzioa, Turismoa eta Tokiko Garapen sailera zuzendu beharko da informazioa eskatzera: enplegua@astigarraga.eus helbide elektronikoaren bitartez edota Kale Nagusia 48 - Kultur Etxea, helbide fisikoan.

– Diru laguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldatu objektiboa zein subjektiboaren berri ematea Astigarragako Udalari.

– Astigarragako Udalak egin ditzakeen finantza kontrol eta egiaztapen jarduerak onartzea.

– Helburu bera duen proiektua egiteari begira, beste administrazio, erakunde publiko edo pribatu bati eskatutako edota horiek emandako diru laguntzaren berri ematea Astigarragako Udalari, eta laguntza horien onarpen idatzia edo ebazpena aurkeztea.

– Udalak babestutako proiektua dela adierzten duen euskarri grafikoa establezimenduaren erakusleihoan jartzea, jendearentzat erakusgarri. Horretarako Udala arduratuko da euskarria sortzeaz eta onuradunari emateaz.

9. Ordainketa eta justifikazio modua.

Dirulaguntzaren ordainketa bi zatitan egingo da:

1. Dirulaguntzaren % 70a dirulaguntza ematen den momentuan ordainduko da.

2. Gainontzeko % 30a, dirulaguntza onartu eta 13 hilabetez emango da. Horretarako, ezinbestekoa izango da dirulaguntza zurrizko honako agiriak aurkeztea:

– Gastuen fakturak eta horiek ordaindu izanaren egiaztagirak. 7. oinarriaren arabera lagun daitezkeen gastuak bakarrik onartuko dira (alokairua, jarduera proiektuaren gastuak ...). Fakturak originalak edo fotokopia konpultsatuak izan behako dute.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzearen frogagiriak.

El importe de la subvención se calculará sobre la base de los gastos, excluidos el IVA y el pago y retenciones de otros impuestos y tasas.

Estas subvenciones serán compatibles con las concedidas por otras entidades.

8. Obligaciones del beneficiario.

– Estar al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

– Tutorización obligatoria.

– Cumplir con los principios generales establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y no hacer un uso sexista del lenguaje y de las imágenes y en concreto: toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán hacer un uso no sexista del lenguaje y evitar cualquier imagen discriminatoria o estereotipos sexistas de las mujeres y promover valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y diversidad en los roles e identidades de género.

– Deberá informarse sobre las subvenciones para la colocación en euskera del rótulo externo, imagen corporativa y páginas web. Para ello, deberá dirigirse al Departamento de Comercio, Turismo y Desarrollo Local del Ayuntamiento de Astigarraga a través de la dirección de correo electrónico enplegua@astigarraga.eus o en la dirección física de la Casa de Cultura, kale Nagusia 48.

– Comunicar al Ayuntamiento de Astigarraga cualquier modificación, tanto objetiva como subjetiva, relacionada con la concesión de la subvención.

– Aprobar las actuaciones de control y comprobación financiera que pueda realizar el Ayuntamiento de Astigarraga.

– Comunicar al Ayuntamiento de Astigarraga la solicitud y/o la resolución de subvención concedida por otras administraciones, entes públicos o privados, para la realización de un proyecto con la misma finalidad.

– Colocar en el escaparate del establecimiento el soporte gráfico que indique que se trata de un proyecto patrocinado por el Ayuntamiento, como muestra pública. Para ello, el Ayuntamiento se encargará de crear el soporte y de entregárselo a la persona beneficiaria.

9. Forma de pago y justificación.

El pago de la subvención se realizará en dos pagos:

1. El 70 % de la subvención se abonará en el momento de la concesión.

2. El 30 % restante se concederá 13 meses después de la aceptación de la subvención. Para ello, será necesaria la presentación de la siguiente documentación justificativa:

– Facturas de gastos y justificantes de pago de los mismos. Únicamente se admitirán gastos subvencionables según la base 7 (alquiler, gastos del proyecto de actividad...). Las facturas deberán ser originales o fotocopias compulsadas.

– Justificantes de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

– Derrigorrezko tutorizazio epea bete duela egiaztatzen duen agiria.

10. Ez betzea eta dirua itzultzea.

Astigarragako Udaleko diru laguntzak emateko erregelamenduaren 5. artikuluan xedatutakoa jarraiki, deialdi honetan ezarritako eskakizunak, aplikatu daitezkeen gainontzeko arauak edo diru laguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezik, ez betetze espedienteak ireki, eta diru laguntzak ezeztatu eta itzuli egin beharko dira, legezko korrituekin batera.

Ez betetze espedienteak hasarazteko eta ebazteko esku-mena, eta hala dagokionean, emandako diru laguntza alde edo osorik itzularazteko ebazpenak, laguntza onartu duen organoak du.

Halaber, justifikatutako zenbatekoa emandako dirulaguntza baino txikiagoa bada, dirulaguntza doitu da, eta, hala badagokio, aldea itzuli beharko da.

11. Azken xedapenak.

Laguntza hauek izaera administratiboa dute, eta administrazioarekiko auzitegiei dagokie udalak kudeatzen dituen diru laguntzekiko jurisdikzio-eskumena.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntza eskaerak Astigarragako Udala ahalbidetzen dute beharrezkoa duen informazioa eskatzera, baldintzen betetzea eta mantentzea bermatzeko, bai beste administrazio edo erakunde publikoei, bai dagokion entitateei.

Oinarrien interpretazioan sortu daitezkeen zalantzen aurrean, Astigarragako Udaleko Komertzioa, Turismoa eta Tokiko Garapen batzorde informatzaileak hartuko du erabakia.

Oinarri hauetan aurreikusten edo jasotzen ez den guztietan Astigarragako Udaleko diru laguntzak emateko erregelamenduaren, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta haren garapenerako araudien arabera ere arautuko dira. Eta horien osagarri, administrazio zuzenbideko gainerako legeak aplikatuko dira, edo horiek izan ezean, zuzenbide pribatukoak.

Astigarraga, 2020ko maiatzaren 26a.—Xabier Urdangarin Lasa, alkatea. (2374)

– Documento acreditativo del cumplimiento del plazo de tutorización obligatoria.

10. Incumplimiento y reintegro.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 5 del Reglamento de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Astigarraga, el incumplimiento de los requisitos establecidos en la presente convocatoria, de las demás normas aplicables o de las condiciones impuestas en la resolución de concesión, dará lugar a la incoación de expediente de incumplimiento y a la revocación y reintegro de las subvenciones, junto con los intereses legales.

La competencia para incoar y resolver los expedientes de incumplimiento, así como, en su caso, la resolución de reintegro de la subvención concedida, corresponderá al órgano concedente.

Asimismo, si el importe justificado fuera inferior a la subvención concedida, se procederá al ajuste de la misma, procediéndose, en su caso, al reintegro de la diferencia.

11. Disposiciones finales.

Estas ayudas tienen naturaleza administrativa, correspondiendo a los Tribunales Administrativos la competencia jurisdiccional sobre las subvenciones gestionadas por el Ayuntamiento.

Las solicitudes de subvención reguladas en estas bases permiten al Ayuntamiento de Astigarraga solicitar la información necesaria para garantizar el cumplimiento y mantenimiento de los requisitos, tanto a otras administraciones o entidades públicas como a las entidades correspondientes.

Ante las dudas que puedan surgir en la interpretación de las bases, la Comisión Informativa de Comercio, Turismo y Desarrollo Local del Ayuntamiento de Astigarraga tomará la decisión.

En todo lo no previsto o recogido en las presentes bases, las subvenciones del Ayuntamiento de Astigarraga se registrarán por el Reglamento de concesión, por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y por su normativa de desarrollo. Y, supletoriamente, se aplicarán las demás leyes de derecho administrativo o, en su defecto, las de derecho privado.

Astigarraga, a 26 de mayo de 2020.—El alcalde, Xabier Urdangarin Lasa. (2374)



**MERKATARITZA EKINTZAILTZA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZA
ESKAERA**
SOLICITUD DE SUBVENCIÓN AL EMPRENDIMIENTO COMERCIAL

E048

I. ERANSKINA / ANEXO I

ESKATZAILEA / SOLICITANTE

Izen-abizenak edo Izen soziala / Nombre y apellidos o Razón social		NAN-AIZ-IFK / DNI-NIE-CIF	
Merkataritza izena / Denominación comercial			
Helbidea / Domicilio	P.K. / C.P.	Herria / Municipio	Lurraldea / Provincia
Telefonoa / Teléfono	e-posta / e-mail		

ORDEZKARIA / REPRESENTANTE

Izen-abizenak / Nombre y apellidos		NAN-AIZ-IFK / DNI-NIE-CIF	
Helbidea / Domicilio	P.K. / C.P.	Herria / Municipio	Lurraldea / Provincia
Telefonoa / Teléfono	e-posta / e-mail		

HARREMANETARAKO PERTSONAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA DE CONTACTO

Izen-abizenak / Nombre y apellidos	
Telefonoa / Teléfono	e-posta / e-mail

KONTU ZK / Nº CUENTA CORRIENTE

E	S																		
---	---	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Astigarragako Udala baimentzen dut lerro hauen gainean adierazi den kontu korrantean helbideratzeko enpresaren datuetan ageri den IFK edo NAN zenbakiarekin dituen harreman ekonomiko guztiak.

Autorizo al Ayuntamiento de Astigarraga a domiciliar en la cuenta bancaria que aparece encima de estas líneas todas las relaciones económicas que con el DNI o CIF que aparece en los datos de la empresa tenga.

Astigarragan,

Sinadura / Firma

Eskari-orri honetako datu pertsonalak erasandakoaren onespenez jasotzen dira, tratamendu automatizatua izango dute eta Astigarragako Udaleko Informazio Sistemari sartuko dira. Datu horiek udal kudeaketarako soilik erabiliko dira, eta beste administrazio publikoetara edo besteri laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoan) aurreikusitakoa gertatzen denean. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea izango dute Astigarragako Udalan: Foru Enparantza 13, 20115 Astigarraga (Gipuzkoa).

Los Datos Personales contenidos en la presente instancia son recogidos bajo el consentimiento de la persona afectada y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Astigarraga. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal. Los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición dirigiéndose a: Astigarragako Udala – Foru Enparantza 13, 20115 Astigarraga (Gipuzkoa).



Astigarragako Udala

MERKATARITZA EKINTZAILETZA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZA
ESKAERA SOLICITUD DE SUBVENCIÓN AL EMPRENDIMIENTO COMERCIAL

E048

GASTUAK / GASTOS

Diruz laguntzekoak diren gastuak Gastos subvencionables	Zenbateko (BEZ gabe) Cuantía (sin IVA)	Fakturaren data edo gastua hasi den data Fecha de la factura o de inicio del gasto
Lokalaren alokairua Alquiler del local		
Jarduera lizentzia Licencia de actividad		
Proiektu tekniko eta ziurtagiriak (teknikari gaituak eginda koak) Proyecto técnico y certificados (expedido por personal técnico acreditado)		
Notaria Notaría		
Erregistro eta liburuak Registro y libros		
Obra proiektuak Proyectos de obra		
Obrak eta egokitzapen lanak Obras y adecuaciones		
Aholkularitza eta kudeaketa Consultoría y gestión		
Aseguruetako primak Primas de seguros		
Autonomoen kotizazio kuotak (edo bestelakoak) Cuotas de cotización de autónomos (u otras)		
Besteak: Otros:		
Besteak: Otros:		



Astigarragako Udala

MERKATARITZA EKINTZAILETA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZA
ESKAERA

E048

SOLICITUD DE SUBVENCIÓN AL EMPRENDIMIENTO COMERCIAL

ENPRESAREN EGITURA / ESTRUCTURA DE LA EMPRESA

	Bazkidea edo enplegatua? * ¿Socio/a o empleado/a?	Generoa ** Genero	Adina Edad	Langabezia, DSBE, ezgaitasuna, etab. egoera Situación de desempleo, RGI, discapacidad, etc.	Familia eremuan betebeharrak? ¿Obligaciones familiares?
1	<input type="radio"/> B <input type="radio"/> E	<input type="radio"/> E/M <input type="radio"/> G/H <input type="radio"/> B/O			<input type="radio"/> Bai / Sí <input type="radio"/> Ez / No
2	<input type="radio"/> B <input type="radio"/> E	<input type="radio"/> E/M <input type="radio"/> G/H <input type="radio"/> B/O			<input type="radio"/> Bai / Sí <input type="radio"/> Ez / No
3	<input type="radio"/> B <input type="radio"/> E	<input type="radio"/> E/M <input type="radio"/> G/H <input type="radio"/> B/O			<input type="radio"/> Bai / Sí <input type="radio"/> Ez / No
4	<input type="radio"/> B <input type="radio"/> E	<input type="radio"/> E/M <input type="radio"/> G/H <input type="radio"/> B/O			<input type="radio"/> Bai / Sí <input type="radio"/> Ez / No
5	<input type="radio"/> B <input type="radio"/> E	<input type="radio"/> E/M <input type="radio"/> G/H <input type="radio"/> B/O			<input type="radio"/> Bai / Sí <input type="radio"/> Ez / No
6	<input type="radio"/> B <input type="radio"/> E	<input type="radio"/> E/M <input type="radio"/> G/H <input type="radio"/> B/O			<input type="radio"/> Bai / Sí <input type="radio"/> Ez / No
7	<input type="radio"/> B <input type="radio"/> E	<input type="radio"/> E/M <input type="radio"/> G/H <input type="radio"/> B/O			<input type="radio"/> Bai / Sí <input type="radio"/> Ez / No
8	<input type="radio"/> B <input type="radio"/> E	<input type="radio"/> E/M <input type="radio"/> G/H <input type="radio"/> B/O			<input type="radio"/> Bai / Sí <input type="radio"/> Ez / No

* B: bazkide-socio, E: enplegatua-empelado

** E/M: emakumezkoa-mujer, G/H: gizona-zkoa-hombre, B/O: beste identitateak-otras identidades



ZINPEKO AITORPENA
DECLARACIÓN JURADA

E049

II. ERANSKINA / ANEXO II

AITORTZAILEA (persona fisiko edo juridikoa) / DECLARANTE (persona física o jurídica)

Izen-abizenak edo izaera soziala / Nombre y apellidos o razón social		NAN-AIZ-IFK / DNI-NIE-CIF	
Helbidea / Domicilio	P.K. / C.P.	Herria / Municipio	Lurraldea / Provincia
Telefonoa / Teléfono	e-posta / e-mail		

ORDEZKARIA / REPRESENTANTE

Izen-abizenak / Nombre y apellidos		NAN-AIZ-IFK / DNI-NIE-CIF	
Helbidea / Domicilio	P.K. / C.P.	Herria / Municipio	Lurraldea / Provincia
Telefonoa / Teléfono	e-posta / e-mail		

Adinez nagusia eta ezagueraz zentzuduna naizelarik Declaración realizada siendo mayor de edad y en egindako aitortpena: plena posesión de mis facultades.

1. Ez nago honako egoera batean:

- Diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo baten bidez kondenatuak izatea, honako delitu hauengatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.
- Borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo izana, konkurtsoan deklaratura egotea (hitzarmen batek horretan eraginkortasuna hartu duenean izan ezik), esku-hartze judizialaren mende egotea edo desgaituta egotea.
- Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana.
- Diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta ez izatea.
- Ebazpen irmo baten bidez diru-laguntzak lortzeko aukera galdu izana.

1. No me encuentro en ninguna de las siguientes situaciones:

- Haber sido condenadas mediante sentencia firme a la pena de pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas o por delitos de prevaricación, cohecho, malversación de caudales públicos, tráfico de influencias, fraudes y exacciones ilegales o delitos urbanísticos.
- Haber solicitado la declaración de concurso voluntario, haber sido declarados insolventes en cualquier procedimiento, hallarse declarados en concurso, salvo que en éste haya adquirido la eficacia un convenio, estar sujetos a intervención judicial o haber sido inhabilitados.
- Haber dado lugar a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.
- No hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.
- Haber sido sancionado mediante resolución firme con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones.

2. Beterrri-Buruntza Ekinean zerbitzuko tutorizazio tekniko onartzeko konpromisioa hartzen dut. 2. Asumo el compromiso de aprobar la tutorización técnica del servicio Beterrri-Buruntza Ekinean.



ZINPEKO AITORPENA
DECLARACIÓN JURADA

E049

3. Astigarragako Udalak diruz lagundutako 3. La cantidad total recaudada para la actividad jarduerarako, guztira, diru-sarrerak hauek izan subvencionada por el Ayuntamiento de ditugu : Astigarraga ha sido:

AZALPENA / CONCEPTO	KOPURUA / IMPORTE
GUZTIRA DIRU-SARRERAK / CANTIDAD TOTAL RECAUDADA	

Astigarragan,


Sinadura / Firma

Eskari-orri honetako datu pertsonalak erasandakoaren onespenez jasotzen dira, tratamendu automatizatua izango dute eta Astigarragako Udaleko Informazio Sistemari sartuko dira. Datu horiek udal kudeaketarako soilik erabiliko dira, eta beste administrazio publikoei edo besteri laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoan) aurreikusitakoa gertatzen denean. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea izango dute Astigarragako Udalan: Foru Enparantza 13, 20115 Astigarraga (Gipuzkoa).

Los Datos Personales contenidos en la presente instancia son recogidos bajo el consentimiento de la persona afectada y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Astigarraga. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal. Los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición dirigiéndose a: Astigarragako Udala – Foru Enparantza 13, 20115 Astigarraga (Gipuzkoa).



DIRULAGUNTZA EREMUA
ÁMBITO SUBVENCIONAL



Foru Enparantza 13 • ☎ 943 335 050 • 📠 943 335 244 • 20115 Astigarraga • Gipuzkoa • udala@astigarraga.eus